



MUSIKA

Guztiz xarmagarria

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ezin gara pozago egon OLBEren opera denboraldi hau hasi ondoren. Urte eta erdiz antzeppen egin gabe egon ondoren, azkenean behar bezalako saioaz gozatu ahal izan dugu. Hala ere, aitortu behar dugu murrizketa gogorren garai honetan OLBEk irudimena eta ahalegina erakutsi dituela zale guztiei musika eta kantu ona eskaintzeko. Eskertu behar dugu zalan-tzarik gabe. Baina, egia esan, zuzeneko opera baten sentsazioak, atsedendialdiak barne, eta bertaratutako ikusleen artean sozializatzeko aukerarekin, ez du preziorik.

Rentrée honetarako, OLBEk oso titulu egokia aukeratu du, fantasiaz, magia eta xarmaz betea, eta lehen mailako interpreteekin.

Hoffmann-en ipuinak, idazleak berak, Hoffmannek, kontatutako ipuinekin

osatzen dute, Hoffmann bera ardatz hartuta. Pertsonaiak oroitzapenez eta esperientziaz ehuntzen du bere mundu berezia eta horien artean maitatutako emakumeak lau irudiren pean –nahiz eta emakume bakarra izan–: Olympia, Antonia, Giulietta eta Stella. Hor ez da falta arimaren pentsamendu ezkutuei bizia ematen dien figura mefistofelikoa, Hoffmannen beraren nortasun bikoitz gisa.

Michael Fabiano-k, Hoffmannen paperean, publikoa bereganatu zuen, kantu indartsu, argi eta efektistarekin. Aparteko uneak izan zituen, *La chanson de Kleinzach* edo bigarren ekitaldiaren amaierako aria bezalakoak.

Simon Orfila baritonoa, OLBEko ikusleek ondo ezagutzen dutena, maila berean egon zen, eta Lindorf, Coppelius, Miracle edo Dapertutto pertsonaia gaiz-

toak bikain irudikatu zituen, guztiak aztoratzaileak eta perbertsioaren eramaileak opera honetan kontatzen diren lau istorioetan.

Era berean, Mikeldi Atxalandabaso tenorea bere momentu onenean topatu genuen, oso ongi ahotsez, eta adierazkortasun interpretatibo handiarekin.

Jakina, protagonista nagusia Jessica Pratt sopranoa izan zen. Hoffmannen lau maitaleak interpretatuz publikoa txundituta utzi zuen. Eszenako makiltxo magikoak jota aritu zen eta une bikainak izan zituen. Olympiako aria, Antoniako aria eta *Belle nuit* delakoa gustu handiarekin interpretatu zituen, graziaz eta fraseatze gozoarekin.

Orkestraren lan onak, koruak (zorgarriak) eta Vincent Hugueten eszenazuzendaritzak jarri zituzten gainerako osagaiak gau zorgarrian. ●



@ABAQ BILBAO OPERA / E. MORENO ESQUIBEL

OLBEk antolatutako Jacques Offenbach-en *Hoffmann-en ipuinak* opera. Bilbao Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Carlo Montanaro. Bilboko Operaren Abesbatza. Zuzendaria: Boris Dujin. Eszena-zuzendaria: Vincent Huguet. Bakarlariak: Jessica Pratt (sopranoa), Michael Fabiano (tenorea), Simón Orfila (baritonoa), Mikeldi Atxalandabaso (tenorea), Elena Zhidkova (mezzosopranoa), José Manuel Díaz (baritonoa). Lekua: Euskalduna Jauregia. Data: urriaren 23a.